

# gaz-teak



**Getxo**  
*bizi ezazu*

Doako alea

368 zb.  
www.getxo.eus

>> 2022ko Ekaina

**GureGune**  
gaztelekua

**GauEgun**  
gaztelekua

**Nabarmen**<sup>tzekoak</sup>

- > Hurbildu Algortako eta Romoko Gaztelekuetara zure aisialdian
- > Ludotekarako izenematea zabalik berriro
- > Gazteentzako baliabideen foru-gida

# Hurbildu Algortako eta Romoko Gaztelekuetara zure aisialdian

**Zer da?** Gaztelekuak 11 eta 17 urte bitarteko gazteen-  
tzako topalekuak da, aisialdian nahi dutenean hurbil-  
tzeko. Getxon bi daude, bata GAUEGUN (Algorta)  
eta GUREGUNE (Romo).

**Hara joan zaitezke:** eskulanak, sukaldaritza taile-  
rrak, irteerak (kayak, koltxoneta elastikoak, zinea,

zirkua, escape room-a) egitera.  
Udan zerbitzua goizez eta arratsaldez irekiko da fa-  
milia bateragarri egiteko eta aste barruan irteerak  
izango dira.

**Nola erabil daitezke zerbitzua?**  
Familiak eta nerabeak Algortako eta Romoko Gazte-

lekuetara hurbil daitezke, eta talde hezitzaileak azal-  
duko dizkiete zertan datzan zerbitzua, hezkuntza-  
taldearen aurkezpena, ordutegia eta programazioa.

**Zenbat urte daramatzate martxan?**  
✓ Algortako Gaztelekuak: 2009tik.  
✓ Romoko Gaztelekuak: 2017tik.

## Algortako Gaztelekuak



gexo\_guregune



### ZER EGIN DAITEKE BERTAN?

- Hainbat gune daude:
- \* Topagunea: Berbetan, aldizkari bat irakurtzen edota Play edo Wii-an jolasten egoteko tokia.
  - \* Lantegi-gela: Etxerako-lanak egiteko 17:00etatik 18:00etara edo mota guztietako tailerrak egiteko tokia.
  - \* Ordenagailu eta mahai-joku gela.
  - \* Ping-pong mahaia, futbolina eta filmak ikusteko proiektorea dituen gela.

### NOIZ IREKITZEN DA?

**Astearte-asteazken-ostegunetan,** 17:00etatik 20:00etara  
**Ostiral eta larunbatetan,** 17:00etatik 21:00etara  
Igandeeetan, astelehenetan eta abuztu osoan itxita dago.

### NON DAGO?

Urgull Kalea /4. 3. solairua  
Algorta.

### ARGIBIDE GEHIAGO:

Tel.: 944 66 03 56  
[gauegungaztelekua@getxo.eus](mailto:gauegungaztelekua@getxo.eus)  
[www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

GauEgun  
gaztelekua

### Algortako Gaztelekuaren programazioa Ekaina

- Hilak 3, ostirala:** TAILERRA: BIOERAIKUNTZA: BIZI GAREN GUNEAK NOLA ETA ZEREGIN ERAIKITZEN DITUGU?  
**Hilak 4, larunbata:** IRTEERA: UR GINKANA  
**Hilak 8, asteazkena:** JOLASA: CONOCIENDO PAISES DEL MUNDO  
**Hilak 10, ostirala:** MASTER CHEF: BROWNIE  
**Hilak 14, asteartea:** JOLASA: SUPER SMASH BROS  
**Hilak 17, ostirala:** MASTER CHEF: HANBURGESA  
**Hilak 18, larunbata:** IRTEERA: KOLTXONETAK + DIBERTIMENDUZKO JOKOAK  
**Hilak 21, asteartea:** JOLASA: EXATHLON  
**Hilak 25, larunbata:** IRTEERA: GORLIZKO ITSASADARRA  
**Hilak 28, asteartea:** JOLASA: GUERRA DE GLOBOS

## Romoko Gaztelekuak



gexo\_guregune



### ZER EGIN DAITEKE BERTAN?

- Hainbat gune daude:
- \* Topagunea, berbetan, aldizkari bat irakurtzen, pelikulak ikusten edota Play-an jolasten egoteko tokia.
  - \* Ordenagailu eta mahai-joku gunea.
  - \* Ping-pong mahaia eta futbolina eta dituen gela.
  - \* Sukaldea, praktikatzeko eta tailerrak egiteko.

### NOIZ IREKITZEN DA?

**Astearte-asteazken-ostegunetan,** 17:00etatik 20:00etara  
**Ostiral eta larunbatetan,** 17:00etatik 21:00etara  
Igandeeetan, astelehenetan eta abuztu osoan itxita dago

### NON DAGO?

RKEEn  
Santa Eugenia Plaza 1, behe  
Romo

### ARGIBIDE GEHIAGO:

Tel.: 635 70 65 26  
[gauegungaztelekua@getxo.eus](mailto:gauegungaztelekua@getxo.eus)  
[www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

GureGune  
gaztelekua

### Romoko Gaztelekuaren programazioa Ekaina

- Hilak 2, osteguna:** EKINTZA: ASAMBLEA UZTAILA  
**Hilak 4, larunbata:** IRTEERA: ZIRKURA  
**Hilak 7, asteartea:** SUKALDARITZA: SUKUAK  
**Hilak 10, ostirala:** TAILERRA: BIO-ERAIKUNTZA  
**Hilak 15, asteazkena:** EKINTZA: NEZESER MARGOTU  
**Hilak 18, larunbata:** IRTEERA: GYNKANA  
**Hilak 21, asteartea:** EKINTZA: ZER DA JANARI BEGANOIA?  
**Hilak 23, osteguna:** SUKALDARITZA: JANARI BEGANOIA  
**Hilak 25, larunbata:** EKINTZA: URKATUA  
**Hilak 29, asteazkena:** IRTEERA: IGERILEKURA

## BEKAK SARIAK

\* **XIV. Bizkaldatz Literatur Saria. Istorioa jarraitzeko prest?** izenekoa, Foru Aldundiak deituta. Aurkezten diren pertsonak, euskaraz bada, Gotzone Butron idazlearen *Nire Sarajevo* istorioarekin jarraitu beharko dute, eta gaztelaraz nahi izanez gero, Mikel Alviraren *Los imperfectos* istorioarekin. Kontakizunak irailaren 9ra arte aurkeztu ahal izango dira. 2.000,750 eta 250 euroko hiru sari ezarri dira bi modalitateetan. Informazio gehiago: <https://labur.eus/N8Gcz>

\* **#RedeSTEAM Lehiaketa**, Red Eléctrica Taldeak deituta, Power to Code delakoaren laguntzarekin, Lanbide Heziketa Ministerioaren "Emakumeen talentuaren aldeko STEAM Aliantza. Neskatoak zutik zientzian" arloan. Lehiaketak erronka egiten die DBHko 3. mailako neska ikasleei STEAM diziplinak ikasteko, hau da, Zientzia, Teknologia, Ingeniaritza eta Matematika Arteekin eta Humanitateekin lotuta. Informazio gehiago: <https://redsteam.es/>



### Ludotekarako izenematea zabalik berriro

Ekainaren 6tik 10era irekiko da berriro Areetako Kukupraka Ludotekak udan eta 2022/2023ko ikasturtean eskainiko duen zerbitzuan parte hartzeko izena emateko epea. Familia interesatuek online bidezko galdetegia bete beharko dute umearen datuekin. Inskripzioa/Informazioa: <https://www.getxo.eus/es/euskara/>

## Baliabideen foru gida gazteentzat

Bizkaiko Foru Aldundiak lurraldeko 16tik 30 urtera bitarteko 155.000 gazteri zuzendutako 114 ekimen eta programa biltzen dituen gida aurkeztu du. Horren helburua da, besteak beste, enpleguari, dirulaguntzei, bekei, etxebizitzari eta trebakuntzari buruzko informazio eguneratua jasotzeko aukera ematea gazteei. Gida egungo ekimenak eta programak aldatu ahala eguneratzen da. Informazioa: [bizkaia.eus/gazteak](http://bizkaia.eus/gazteak).